

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Epea irekitzea 2017ko udal zergak eta tasak kobratzeko

Jakinarazten da 2017ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, hauen ordainagiriak:

- Hiri OHZ: bigarren ordainketa: ordainagiriaren ehuneko 50.
- Landa OHZ.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa.

1. ORDAINTZEKO EPEA:

A. Borondatezko epea:

- Hiri eta landa OHZ: 2017ko azaroaren 1etik abenduaren 15era.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: 2017ko abenduaren 1etik 31ra.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa: 2017ko abenduaren 1etik 31ra.

B. Betearazte aldia: 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera administrazio:

premiamentuko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, eta dagokion errekargua, berandutze interesak eta, hala badagokio, sortzen diren kostuak aplikatuko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean aukera hauek dituzte zerga ordaintzeko.

- Kutxabank entitatean:
- Kutxazainean ordaindu, txartela edo libreta erabiliz.
- Urrutiko bankaren bitartez ordaindu.
- Bulegoren bateko leihatilan ordaindu (ordutegi jakin bati lotuta).
- Online ordaindu: Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidean, txartela erabiliz.
- Udal bulegoetan, txartelarekin.

3. GOMENDIOAK:

Bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, eta interesdunari jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Aiarako Udalaren bulegoetan izapidetu beharko dira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2017ko urriaren 18a

Alkate lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA